

# Hirugarren adarra izanen du Donostiako Liburutegi Nagusiak, udaletxeko sotoetan

Gaur inauguratuko da, Liburuaren Nazioarteko Eguna aitzakiatzat harturik

Amagila Irujo / Donostia

Donostiako Udal Liburutegi Nagusiak Konstituzio enparantzan eta Fermin Calbeton kalean bantatuak zituen orain artean bere funtsak. Gaurko 20:00etatik aurrera, hirugarren egoitza izanen du, Alderdi Ederren hain zuzen ere, eta funts modernoa eta ikus-entzunezko materiala eskuratu ahal izateko aukera emango du.

**LIBURUTEGI NAGUSIAK** duen funts kopuru gero eta handiagoak eraginda etorri da hirugarren adarraren beharra, eta behar hori asetzarekin batera, zenbait zerbitzu berri txertatu dituzte orain arterainoko eskaintzan. Bertako zuzendari Susana Sotok azaldu du hiru adarren banaketa: «Alde batetik, Fermin Calbeton kalean, haur saila geratu da. Sail historikoa Konstituzio enparantzan geratu da. Eta Alderdi Ederren, funts moderno gutxia dago».

Urteko egunkariak eta aldizkariak, liburuak, entziklopediak, mailegu eta kontsultarako zerbitzuak erabili nahi dituenak Alderdi Ederren jo behariko du, beraz. «Gero, CD-ROM, CD eta bideoak ere han egongo dira, kontsultarako eta mailegurako. Interneten eta CD-ROMetan kontsultatzeko zerbitzu berri moduan planteatu dugu. 4 postu daude Interneten kontsultatzeko, eta beste 2 CD-ROMetan kontsultatzeko».

## Ikus-entzunezkoak eta ikustekoak garenak

Liburutegietan liburu soilak galdiko eskaintza gero eta ugariagoa izatea, Sotoren ustez, gero eta eskaera handiago bati erantzunez dator: «Une hauetan ikus-entzunezko materiala gero eta garrantzitsua da. Jendeak eskatu egiten zigan, baina guk liburuak jartzeko lekurik ere ez genuenez, ezin hasi bestelakoak jartzek. Horregatik, nahiz eta behin-behineko egoitza izan hori, gutxienez laupabost urte bertan emateko ongi gaudu».

Gaur inauguratuko den egoitza berriaren eta aurreko bien behin-behinekotasuna-



Ikus-entzunezkoak erabili eta Internet bidezko kontsultak egin ahal izango dira Alderdi Ederreko egoitza berria.

## SUSANA SOTO

(Donostiako Liburutegi Nagusiko zuzendaria)

«Urte asko pasatu dira gure toki falta arazo gisa ikusteko gogorik gabe, baina une hauetan badakite erantzun bat eman behar dutela»

ren haritik, Odon Elorzak Udal Liburutegi Nagusiaren egoitza berri baterako proposamena egin zuen atzo komunikabideen aurrean: San Bartolome urbanizazio berria eraikin bat egitea.

Sotok nabarmendu duenez, Liburutegi Nagusia hiru zatitan banatua egoteak zailtasunak ekartzen dituela bai liburutegiko arduradunak, bai erabiltzaileak. «Eta dena leku berria biltzeko arazorik

handiena, nire ustez, toki egoki bat bilatzea da. Izan ere, hiri erdialdean behar luke egoitza horrek, eta hiru edo lau mila metro koadro behar genituzke horretarako. Orain arte, urte asko pasatu dira hau arazo gisa ikusteko gogorik gabe. Baina une hauetan badakite erantzun bat eman behar dutela».

Donostiako alkateak atzo jakinarazitako proposamena onartu eta obrak hasi eta amaio bitartean laupabost urte igaroko dira, Sotoren aburuz.

## Datuak eta berrikuntzen zerrenda luzea

**DONOSTIAKO** Udal Liburutegi Nagusiaren leku arazo aspaldiko da Susana Sotoren arabera, baina azken urteotan ia-ta jasanak izan da: «Handituz joan da arazo. Irakurle eta liburu gehiago daude maileguan».

Datuak berrikuntza besterik ez dago hazkuntza hori ikusteko: 1991n, 4.439 bazkide zituen Liburutegi Nagusiak; 1994an, 6.448; izuz, 10.814 bazkidekoa zen kopurua.

Mailegietan ere hazkuntza nabaria da: 1991n, 28.508 mailegu izan ziren; 1994an, 53.270; lau urte geroago, 56.414ra iraino heldu zen kopurua.

Lehenengo urtean bertan, 725 bazkide berri egin zituen Liburutegi Nagusiak.

Hazkuntza hori guztia zerbitzuak ere egokitu behar, eta Liburutegi Nagusiak ezagutari zehatza eman dio bere adar bakoitzari. Fermin Calbeton kaleko egoitzan, haur literatura mantenduko da.

Alderdi Ederreko egoitzan, kontsulta-

rako materiala eta urteko aldizkari eta egunkariak batera, mailegurako liburu bilduma modernoa (18.000 tzenburu), disko konpaktuak (800 tzenburu), bideoak (500 tzenburu) eta CD-ROMak (150) jarriko dira. Fonoteka ere izanen da, 6 entsezu lekuarekin. Bideoak ikusatzeko 2 pantaila daude. CD-ROMak erabiltzeko 2 leku badira, eta Interneten kontsultatzeko 4. Udaletxeko sotoetako 600 metro koadroan bilduak denak.

Konstituzio plaza-ko ohiko egoitzan, funts historiko guttiat pilatuko da. Funtz horien eta mikrofilmaturko prentsa-entzunezkoen kontsultak lehen solairuan egingo da. Bigarren solairuan ikasteko jarriko da, baina esingoa da erabili eraikina zahar berritzeko lanak bukatu artean.

Bilduma historikoen kontsulta, orain arte moduan, eskaera bidez egin behariko da, eta Liburutegi Nagusiko Unitate Tekniko Zentrak bertan jarraituko du.

«Interpretaziorako maila» duten ahotsak falta direla deritzo Ainhoa Artetak

■ Soprano tolosarra 'Julietta' izango da lehen aldiz, Kantaria uhartetan

Errealakina / Bibe

AINHOA ARTETA sopranoaren iritziak, «interpretaziorako maila egokia» duten ahotsak falta dira gaur egun, nahiz eta kantari handiak badiren. Adierazpenek Kantaria uhartetan egin dituen tolosarrak, non maiztasun lehen egunetan *Romeo eta Julietta* opera interpretatuko duen. Charles Gounod musikagilearen opera hori lehen aldiz eszenaratuko du Artetak, bere ibilbide artistikoan pertsona anitz abestu baditu ere, inoiz ez baita Julietta izan.

Kantari moduan duen arrakasta «guztiraan arretak izanagailu» lortu duela deritzo Artetak. Opera kantari gisa landu duen ibilbidea «hainbat abeslariaren ordezkapenak eginez» jarraitu duela ziurtatu zuen.

## Opera abeslariaren ahotsa

Sopranoaren arabera, opera abeslariaren ahotsak «nortasun handia eta indarra» behar du, «opera artea baita eta sentimendua eta sentimenduak ahotsaren bitartez goratu behar baitira».

Hilabete askotako lana izan da Artetarentzat Julietta pertsonaia prestatzea. Horregatik, «amaldi orak» eskaintza espero du. Bere ahotsa «frantziar erreperitorioak egokia» dela deritzo.

Roger Rossini Las Palmasko Opera Jaialdiko zuzendari artistikoaren iritziak, Artetak bikain egingen du Juliettaren rola, lasai eta ahots zoragarria erakutsiz.

Gaur egungo kantariak, lehenengo aldean, «maila hobea» erakutsi behar dutela deritzo tolosarrak. Gainera, egun dauden garaien eraginez, abeslariak «atseden hartzeko denborarik» ez dutela salatu zuen. Bestalde, hainbat kantariaren soldata handiak defenditu zituen, «ibilbide luze eta arrakastatsuen emate» direla.